

## Asteburu honetan Ordizian N-I errepidea gauzez itxiko da AT Sistemako arku berria jartzeko



***Igandean, uztailak 10, 00:00etatik 07:00etara errepidea itxita egongo da bi noranzkoetan.***

Asteburu honetan Bidegi foru agentziak AT Sistemako lau arku berrietatik lehena jarriko du N-I errepidean, Ordizian. Arkuburua lekuz aldatu eta muntatzeko lanak direla eta, errepidea itxi egin beharko da bi noranzkoetan, igandean, uztailak 10, 00:00etatik 07:00etara. Mozketak 1,6 kilometroko zatiari eragingo dio, Ordizia hegoaldeko 420 lotunetik Ordizia iparraldeko 422 lotunera .

Bidegik, ahal den neurrian, puntu horretako joan-etorriak aurreratzea edo atzeratzea gomendatzen du itxierarekin bat ez etortzeko. Alternatiba gisa, bi noranzkoetako ibilgailu arinak GI-2133 errepidetik eta Ordiziako erdigunetik desbideratuko dira, N-I errepidera berriro itzultzeko. Arabatik edo Nafarroatik Behobiarako noranzkoan datozen ibilgailu astunek Etzegarate saihestu beharko dute, eta Altsasuko lotunean A-10 eta A-15 autobideetatik Andoainera heldu. Gipuzkoatik Arabara eta Nafarroara doazenek ibilbide bera egin beharko dute alderantzizko noranzkoan. AP-8/AP-1 autobidetik ere zirkulatu dezakete.

Kamioiak mozketa-gunera hurbiltzen badira, Mallutzeko industrialdean eta Ordiziako N-I errepidera sartzeko adarretan geratu beharko dute lanak amaitu eta errepidea berriro zabaldu arte. Itxiera, N-I, A-15, AP-8, AP-1 eta A-636 errepideetako mezularitza aldakorreko paneletan iragarriko da, eta desbideratzeak behar bezala seinaleztatuta egongo dira.



Arkuak Etzegaraten, Andoainen, Astigarragan edo Beasainen daudenen ezaugarri berberak izango ditu: ia 30 metroko luzera eta 16 tonatik gorako pisua duen egitura. Matrikulak irakurtzeko eta ibilgailuaren jarraipena egiteko 12 kamera izango ditu argi infra-gorriarekin, 6 noranzko bakoitzean, eta 12 antena TAGak irakurtzeko eta ibilgailuak kokatzeko, baita 6 noranzko bakoitzean ere. Era berean, 6 laser-detektagailu izango ditu, hiru noranzko bakoitzeko, eta horiek egingo dute ibilgailuak sailkatzeko detekzio bolumentrikoa.

Aurreikuspenen arabera, arku honen ondoren, abuztuaren amaieran, Tolosakoa eraikiko da eta urriaren erdialdean Lasarte Oriakoa, biak ere N-I errepidean. Azaroaren amaieran Belabietakoa jasoko da, izen bereko tunelaren parean, A-15 errepidean.

Zarautz, 2022-07-07

## Cierre nocturno de la N-I en Ordizia este fin de semana para colocar el nuevo pórtico de AT Sistema



***Desde las 00:00h hasta las 07:00h del domingo 10 de julio, la carretera estará cortada en ambas direcciones***

La agencia foral Bidegi instalará este fin de semana en la N-I en Ordizia ,el primero de los cuatro nuevos pórticos de AT Sistema. La operativa del traslado del dintel y su montaje obligará a cortar la carretera en ambos sentidos desde las 00:00h hasta las 07:00h del domingo 10 de julio. El cierre afectará a un tramo de 1,6 kilómetros entre los enlaces 420 (Ordiza Sur) y 422 (Ordizia Norte).

Bidegi recomienda en la medida de lo posible adelantar o retrasar los desplazamientos por este punto para no coincidir con el cierre. Como alternativa, los vehículos ligeros en ambas direcciones serán desviados por la GI-2133 y por el centro de Ordizia hasta su reincorporación a la N-I. Los pesados provenientes desde Araba o Navarra dirección Behobia deberán evitar Etzegarate y en el enlace de Altsasua optar por la A-10 y la A-15 hasta Andoain. Los que vayan desde Gipuzkoa hacia Araba y Navarra deberán hacer el mismo recorrido en sentido inverso. También pueden circular por la autopista AP-8/AP-1.

En el caso de que haya camiones que se acerquen al punto de corte serán retenidos en el polígono industrial de Mallutz y en los ramales de incorporación a la N-I en Ordizia hasta que finalicen los trabajos y se habilite el paso. El cierre será anunciado



en los paneles de mensajería variable de la N-I, A-15, AP-8, AP-1 y A-636 y los desvíos estarán debidamente señalizados.

El pórtico tendrá las mismas características que las existentes en Etzegarate, Andoain, Astigarraga o Beasain: Una estructura de casi 30 metros de longitud y un peso total de más de 16 toneladas. Llevará 12 cámaras de lectura de matrículas y seguimiento del vehículo con luz infra-roja, 6 en cada sentido, y 12 antenas para lectura de los TAG y posicionamiento de los vehículos, también 6 en cada sentido. Asimismo, estará equipado con 6 detectores láser, tres por sentido que serán los que realicen la detección volumétrica para clasificar los vehículos.

Se prevé que tras este pórtico le sigan los de Tolosa a finales de agosto y Lasarte Oria a mediados de octubre en la N-I y a finales de noviembre la de Belabieta a la altura del túnel de mismo nombre en la A-15.

Zarautz, 2022-07-07